



LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainak 28

Stonewalleko gertakariez geroztik (1969) ekainaren 28an **LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** ospatzen da. Borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere: eskubide berberak dituen jende askearen gizartea izateko, sexu-desioaren orientazioagatik edo genero-identitateagatik bereizkeriarik gabe.

Krisi sozioekonomiko larria ate joka dugunean, gorroto-diskurtsoak eta erasoak areagotzen ari dira, eta LGTBI pertsona askoren bizi-baldintza orokorrak prekarizatzen eta okertzen ari dira, batez ere, bereziki zaugarriak diren kolektiboenak, hala nola trans pertsonak, egoera administratibo irregularrean daudenak, arrazializatuak direnak, eta abar.

Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaugarrienen eskubide horiek izan ditzaten. Aitzakiarik gabe, politika eraldatzaileak eta baliabide nahikoa bermatu behar ditugu, gure udalerrri eta herrialdeetako LGTBI pertsonen beharrei eraginkortasunez erantzuteko: krisiaren ondorio negatiboak iraultzeko premiazko politikak eta sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik mendekotasunik eta hierarkiarik gabeko gizarte-eredurantz trantsizioa gauzatzeko aukera emango diguten politika emantzipatzaileak, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko.

Aurten ere, ekainaren 28an aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariaren borroka luzea, eta horregatik, Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak honako konpromisoak hartzen dituzte:

1. Aurrera begira, LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.
2. Administrazio formularioetan, LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko asmoz, aldaketak egitea binarismoa gainditzeko.
3. Beharra denean, haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzeta-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.
4. Sexu eta genero disidentziaren gaineko prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.
5. Sentsibilizazio-kanpaina feministak egitea, egungo testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, hetero-normatibitateari, sexu-orientazioaren eta genero-

identitatearen adierazpen-aniztasunari eta eremu desberdinetan LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.

6. Aurrera begira, zaintzei buruzko lan-ildoak aktibatzea ikuspuntu feministatik eta LGTBI ikuspegitik, zaintza sare komunitarioekiko, kolektibo feministekiko, LGTBI kolektiboekiko eta beste gizarte-eragile batzuekiko lankidetzaz sustatuz.

7. Beharra suertatzen denerako, indarkeriaren biktima diren eta egoera oso zaugarrian dauden LGTBI pertsonentzako harrera-espazioak sortzea, arreta psiko-sozialeko, ekonomikoko, hezkuntzako eta bizitokietako zerbitzuak integratuz, adingabeen, migratzaileen, transexualen berariazko beharrak jasoz.

Gainera, herritarrei dei egiten diegu, datorren ekainaren 28aren bueltan antolatutako ekintzetan parte har dezaten.

Deba-Itziarren, 2021eko ekainaren 24an.